

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

R 1/2012 Ebazpena

14/2009 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 31n

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak zinegotzi dituela, honako erabakia hartu du

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurrean 1 ERAKUNDEaren (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) zerga-egoitzaren inguruan planteatutako gatazkari buruz. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 14/2009 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Saileko idazkari nagusi teknikoaren 2009ko urriaren 23ko ofizio baten bidez planteatu zen. Arbitraje Batzordean egun hartan bertan sartu zen ofizio honekin batera espediente bat aurkeztu zuen, eta espediente hartan, besteak beste, agiri hauek ageri ziren:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko Zuzendari Nagusiaren 2009ko urriaren 22ko erabakiaren kopia. Erabaki horren bidez gatazka planteatzea erabaki zuen, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren proposamenarekin bat etorriz;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

- proposamen horren kopia, 2009ko urriaren 22koa; horrekin batera doa, bereziki;

- "txostena, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokionez Arbitraje Batzordearen aurrean 1 ERAKUNDEaren zerga-egoitzaren aldaketaren inguruan planteatutako gatazka aurkeztu izanari buruz", 2009ko urriaren 14koa. Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzak egindako txosten horretan gatazkaren planteamenduaren oinarritzko aurrekari eta funtsak laburbilduta azaltzen dira, baina ez eskusiboki; izan ere, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren proposamen horretan adierazten denez, "erreklamazioaren oinarrian dauden aurrekari eta arrazonamenduak honekin batera doan espedientean azaltzen dira".

2. Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honi bidalitako espedientetik aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

- 2008ko martxoaren 4an Bizkaiko Foru Ogasuneko Zerga Ikuskaritza Zerbitzuak txostena egin zuen 1 ERAKUNDEaren (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) –aurrerantzean 1 ERAKUNDEA– zerga-egoitza egiaztatzeko jarduketei buruz. Txosten horretan, azaltzen diren aurrekariak eta Zuzenbidezko oinarriak kontuan hartuta, ondorioztatzen da erakunde horren zerga-egoitza ez dagoela BIZKAIAN, baizik eta SANTANDERREN.

- 2008ko martxoaren 7an Bizkaiko Foru Ogasuneko Udal Zergen eta Zerga Zentsuen Zerbitzuak 1 ERAKUNDEaren zerga-egoitza aldatzeko proposamena egin zuen, adierazi zen bezala, "gutxienez 1997az gerotik, urte hartatik aurrera dauzkalako higiezinak Kantabrian". Proposamen hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziari igorri zion, eta harekin batera 2008ko martxoaren 4ko txostena igorri zuen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

- 2008ko urriaren 23an, EAEko ZAEAn Ordezkaritza Bereziaren Zerga Kudeaketako Dependentsia Bereziak 1 ERAKUNDEAREN zerga-egoitza egiaztatzeko jarduketei buruzko txostena egin zuen, eta ondorio hau azaldu zuen: erakunde horren benetako zerga-egoitza, "1994ko otsailaren 10etik –data hartan eratu baitzen–, BIZKAIAN dago, aipatu den leku hartan egiten baitira administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza".

- Lehengo txosten hori Bizkaiko Foru Ogasunari igorri zitzaion, 2008ko azaroaren 4ko ofizio baten bidez. Ofizio hartan zera azaldu zen:

"Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEAREN 2008ko urriaren 23ko txostenean ulertzen denez, aurkeztutako agirietatik eta egindako jarduketetatik ondorioztatzen da **ez dela bidezkoa proposatutako zerga-egoitzaren atzeraeragina**. Horregatik, eta "*Ekonomi Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei eta helbide-aldaketen gaineko adiskidetasunezko prozedurari buruzko lantaldearen Ondorioak*" izenekoaren 5.3 puntua kontuan hartuta, txosten horiek igorri dira, txosten horiek aztertutakoan **proposamena berretsi edo osatu dadin**, edo ondorio horietan aurreikusita dagoen bezala **Administrazio bien arteko bilera egin dadin**".

(letra beltza eta etzana jatorrizko agirian ageri dira)

- 2009ko otsailaren 20an Bizkaiko Foru Ogasuneko Zerga Ikuskaritza Zerbitzuak beste txosten bat egin zuen, 2008ko azaroaren 4ko txostena berresteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

- 2009ko martxoaren 3an Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendaritza Nagusiak ofizioa igorri zion EAEko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziari. Ofizio horren azken paragrafoak honela zioen:

"Txosten horiek [Foru Ogasuneko Zerga Ikuskaritza Zerbitzuaren 2008ko martxoaren 4ko txostena eta EAEko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren Zerga Kudeaketako Dependentsia Bereziaren 2008ko urriaren 23ko txostena] eta Foru Ogasun honetako Zerga Ikuskaritza Zerbitzuak 2009ko otsailaren 20an egindakoa aztertutakoan, eta 'Ekonomi Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei buruzko lantaldearen ondorioen' 5.3 puntuan ezarrita dagoena oinarri hartuta, Ogasun honek berretsi egin nahi du 2008ko martxoaren 7ko proposamenean ezarrita dagoena, eta beste txosten baten bidez osatzen du. Administrazio horren erantzunaren zain geratzen da eta uko egingo dio Administrazio bien arteko bilera egiteari, baldin eta 2008ko azaroaren 5eko azaroko komunikazioan ezarrita dagoena berresten bada; hala gertatuz gero, prozedurarekin aurrera jarraituko da, Itunaren 43. artikuluko Seigarren idatz-zatian aurreikusita dagoen bezala".

- 2009ko irailaren 10ean, eta EAEko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziak ofizioa igorri zion Bizkaiko Foru Ogasunari. Ofizio horretan azaldu zuenez, "ez dago datu nahikorik zergadunaren zerga-egoitza Kantabrian ezartzeko" eta ondorio gisa paragrafo hau azaltzen du:

"Horregatik, eta "*Ekonomi Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei buruzko lantaldearen Ondorioak*" izenekoaren 5.3 puntuarekin bat etorritik jakinarazi behar dizut ezin dela proposamena onartu; dena dela, beharrezkotzat jotzen baduzu,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

Administrazio bien artean bilera bat egiteko deialdia egin ahal da, ondorio horietan aurreikusita dagoen bezala".

(letra etzana jatorrizko agirian ageri da)

3. Arbitraje Batzordeak, 2010eko abenduaren 20an egindako bileran, gatazka izapiderako onartu zuen, eta ZAEArri alegazioak egiteko agindeia egin ondoren, ZAEAk izapidea betetzeko idazki bat egin zuen 2011ko otsailaren 9an. Idazki horrekin, azaldu dituen izatezko aurrekariak eta zuzenbidezko oinarriak oinarri hartuta, Arbitraje Batzordeari ebazpena eman zezala eskatu zion, hitzez hitz zera azalduz:

"1.a) Izapiderako ez onartzea, gatazkaren planteamendua garaiz kanpokoa delako, gatazka honen zuzenbidezko LEHENENGO oinarriaren arabera.

2.a) Aurreko horren ordezkari, kasuren batean gatazka onartzen bada, zera eskatzen da: Bizkaiko Foru Ogasunak lortu nahi duena gaitzestea eta deklaratzeko 1 ERAKUNDEA (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) sozietateak bere zerga-egoitza Bizkaian daukala eratu zenetik eta bertan daukala oraindik ere, ez baita egiaztatu –batere ez– aldaketarako eta atzeraeraginerako azaldutako arrazoi bat ere".

4. Espedientea agerian jarri ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazio gehiago egin zituen, bere Ikuskaritza Zerbitzuaren 2011ko maiatzaren 26ko txosten batean bilduta. Txosten hori Arbitraje Batzorde honi bidali zitzaion 2011ko ekainaren 1eko ofizioaren bidez, (ofizioa Arbitraje Batzordean erregistratu zen hilaren 6an). Txosten hartan Arbitraje Batzordeari eskatu zitzaion 1

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

ERAKUNDEAK bere zerga-egoitza SANTANDERREN zeukala deklaraz zezala, eragin-data "gutxienez 1997ko urtarrilaren 1era arte atzeratuta".

5. Espedientea agerian jartzeko izapidean 1 ERAKUNDEAK ere alegazioak egin zituen, 2011ko ekainaren 10eko idazkiaren bitartez. Idazki hori Arbitraje Batzordean egun hartan bertan erregistratu zen. Idazki hartan, erakundeak hainbat aurrekari azaltzen du, besterik gabe, baina aurrekari horiei buruz ez du inolako arrazonamendu juridikorik ematen, eta ez dio inolako eskaririk egiten Arbitraje Batzordeari. Dena dela, aurkezten dituen datu guztien xedea 1 ERAKUNDEAREN helbidea beti Bizkaian egon dela frogatzea da.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Gatazka honen xedea 1 ERAKUNDEAREN zerga-egoitza zehaztea da. Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez Kantabrian dago, baina ZAEAREN ustez Bizkaian dago. Eztabaidaren xede den epealdia ere ez da baketsua. Izan ere, ZAEAREN ustez, sozietate horrek helbidea BIZKAIAN eduki du 1994an eratu zenetik, eta Foru Aldundiak helbidearen atzeraeragina mugatzen du, Santanderren ezartzen baitu 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Hala definitu den gatazkaren muina aztertzen hasi aurretik ZAEAK argudiatzen duena aztertu behar da, hau da, garaiz kanpo egoteari buruzko alegazioa. Auzi hori ebazteko kontuan hartu behar da abenduaren 28ko Errege Dekretu bidez onetsitako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 13.2 artikulua. Artikulu horrek dioenez, "gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko paragrafoan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontatzen hasita". 1. Idatz-zatiak xedatzen duenez, "inhibizioko errekerimendua jasotzen denetik hilabeteko epean errekerimendu horri erantzuten ez dionean, ulertuko da tributuan administrazioa bere eskumenean isilbidez berresten dela".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

EIABaren 13. artikuluko 1. Idatz-zatiak dioenez, "zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren paragrafoan aipatzen den lau hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango paragrafo honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskugabetasuneko aitorpena egitea, gatazka aurkeztu ahal izateko". EIABak aipatzen duen Ekonomi Ituneko manuan bi hilabeteko epea ematen zaio helbide-aldaketari buruzko errekerimendua jaso duen Administrazioari, proposamenari buruzko irizpena eman dezan. Epe hori igaro ondoren adostasunik egon ezean erregelamenduzko arauak ulertzen du ezezko erantzuna eman dela, eta horren ondorioz gatazka formalizatzen dela. Hala izanez gero, proposamena egin duen Administrazioak ez du errekerimendurik egin behar izango.

Arau horiek ez dira aplikatu behar orain. Izan ere, kasu honetan Administrazio interesdunek haien artean proposamenak eta ondoriozko ukapenak egin dituzte, honako sekuentzia honetan:

- 2008-03-07: Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamena, helbidea Kantabriara aldatzeari buruzkoa. ZAEAk adierazi duenez, proposamen hori apirilaren 18an jaso zen.
- 2008-11-04: ZAEAk proposamen horri ezezko erantzuna eman zion.
- 2009-03-03: Bizkaiko Foru Aldundiak bere proposamena berretsi zuen. Berrespenaren jakinarazpena ZAEARI posta elektronikoz bidali zitzaion 2009ko martxoaren 11n, ZAEAk bere alegazio-idazkian dioenez. Bizkaiko Foru Ogasunak Arbitraje Batzorde honi bidalitako espedientean Euskal Autonomia Erkidegoko ZAEARI bidalitako posta elektronikoko mezua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

irakurri izanaren gaineko mezu elektronikoko bat data hartan inprimatu zela azaltzen da, baina ez da azaltzen posta elektronikoko mezu horren edukia, ezta mezuarekin batera fitxategi erantsirik doan ere.

- 2009-09-10: Proposatutako aldaketaren aurkako jarrera berretsi zuen ZAEAK. Erabaki horren berri posta elektronikoko bidez jakinarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiari hilaren 11n. Posta elektronikoko mezu horren kopia inprimatua eta mezu hori irakurri izanaren gaineko mezua ZAEAREN idazkiaren II. eranskin gisa ageri dira. Jakinarazpenaren data hori Bizkaiko Foru Aldundiak ez du auzitan jartzen.

Zerga Agentziak argudiatzen duenez, "ZAEAK eskumena berretsi zuen 2009ko irailaren 11ko jakinarazpenaren bidez. Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiak 2009ko urriaren 22an gatazka planteatu izana, ZAEARI urriaren 23an egindako jakinarazpenetik ondorioztatzen den bezala, eta Foru Ogasuneko Zuzendari Nagusiak gatazka aurkeztu zuen data guztietan ageri den bezala, gatazka aurkezteko datak aise gainditzeko du ZAEAREN eskumena berretsi zen egunetik (2009ko irailaren 11tik) igarotako hilabeteko legezko epea. Horrenbestez, gatazka epetik kanpo aurkeztu zen guztiz". Benetan, gatazka 2009ko urriaren 23an planteatu zela ulertu behar da, egun hartan Arbitraje Batzordean sartu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Saileko idazkari nagusi teknikoaren 2009ko urriaren 23ko ofizioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko Zuzendari Nagusiak gatazka planteatzeko 2009ko urriaren 22an hartutako erabakia igortzekoa. Zehaztapen horrek, dena dela, ez du eraginik ZAEAK erabil duen argudioan.

3. Gatazka epez kanpo planteatu zela dioen alegazioaren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiak bere bigarren alegazio-idazkian –2011ko maiatzaren 26an– zera argudiatu zuen: "Administrazio biek Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoan helbide-aldaketei buruz adostu zuten adiskidetasunezko prozedura baten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

barruan posta elektronikozko mezu bat bidali zeneko data ez da ulertu behar esanbidezko edo isilbidezko berrespen data gisa, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikuluan aipatzen den hilabeteko epea zenbatzearen ondorioetarako".

Jarraian Bizkaiko Foru Aldundiak "Ekonomi Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei buruzko adiskidetasunezko prozedura" delakoari buruz Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30eko bileran onetsitako arauen 5.3 idatz-zatia transkribatzen du. Idatz-zati horrek "Adiskidetasunezko proposamena jaso duen Administrazioaren erantzuna" idazpurua dakar, eta zera ezartzen du:

"Adostasunik badago, akordioan ageri den zerga-egoitzaren arabera eskuduna den Administrazioak helbidea aldatzeko legezko prozedura hasiko du.

Adostasunik ez badago, eztabaida konpontzen saiatzeko bilera bat egingo da ukitutako Administrazioen artean.

Eztabaidak irauten badu, proposatutako helbidea –ukatu den hori– dagoen eremuko ZAEAREN Ordezkarri Bereziak edo dagokion FORU Ogasuneko Zuzendari Nagusiak proposamenaren aurkako txostena igorriko du, eta prozedura egiten jarraitu ahal izango da Itunaren 43. Artikuluko Sei garren idatz-zatian aurreikusita dagoen moduan; dena dela, Administrazio bakoitzak bere eskumenak erabili ahal izango ditu".

Itunaren 43. artikuluko Sei idatz-zatiak hau xedatzen du:

"Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori Ekonomia Itun honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa".

Bizkaiko Foru Aldundiak zera argudiatzen du:

"Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Dependentsiako Buruak 2009ko irailaren 11ko posta elektronikoko mezua bidali izana Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikuluan aipatzen den Ekonomi Itunaren 43. Bederatzi artikuluko prozedura baino lehenagoko Adiskidetasunezko Prozeduraren 5.3 idatz-zatian aipatutako erantzunaren barruko egintza bat da.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Dependentsiako Buruak bidalitako posta elektronikoko mezuek esplizituki aipatzen du Adiskidetasunezko Prozeduraren 5.3 idatz-zatia, eta geroago "Administrazioen arteko bilera baterako deialdia" egin beharko litzateke. Hala eginez gero, bilera hori posta elektronikoko mezua bidali eta gero egin beharko litzateke.

Laburbilduz, hau ez da Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13. artikuluan aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespena, baizik eta erantzun bat, adostutako Adiskidetasunezko Prozedura baten barruko Administrazioen arteko bilazko bilera baten aurrekoa. Prozedura hori, Ekonomi Itunaren 43. artikuluko Bederatzi eta Sei idatz-zatietan ezarritakoa hasi baino aurrekoa da. Beraz ez da bidezkoa aipatutako hilabeteko epe hori zenbatzea 2009ko irailaren 11ko adiskidetasunezko proposamenari emandako erantzunetik. Horrenbestez, gatazka garaiz planteatu zela ulertu behar da".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

4. Gatazka hau garaiz edo garaitik kanpo planteatu den ala ez galdetuz gero, beraz, beste galdera hau egin beharko dugu: EAEko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2009ko urriaren 10ekoa ofizioa –hurrengo egunean jakinarazia– organo horren eskumenaren berrespena den, EIABAREN 13. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatien ildotik, eta berez, ofizio horren datatik aurrera hasten ote den Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka planteatzeko hilabeteko epea, ZAEAK dioenez, edo bestela, aurretiazko edo izapide hutsezko egintza den, "Ekonomi Itunaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketei eta helbide-aldaketen gaineko adiskidetasunezko prozedura" izenekoaren barruan, Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoaren barruan adostutako arauak garatua –hala formulatu ahal da Bizkaiko Foru Aldundiaren tesia.

Galdera horri erantzuteko kontuan hartu behar da aipatu diren arauak diseinatzen duten hori oso formalizatuta ez dagoen prozedura dela, "adiskidetasunezko" gisa kalifikatutako prozedura den aldetik. Ekonomi Itunaren 43. Bederatzi artikulua dioen moduan:

"Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Aldaketa sustatzen duen administrazioak bere proposamena beste alderdiari bidali behar dio, behar diren aurrekari guztiekin, eta hark bi hilabete izango ditu aldaketaz eta ondoreak sortuko diren egunaz ebazpena emateko. Besteak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulua honetako sei paragrafoan azaldutako eran".

Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako arauak prozedura horren alderdi batzuk zehazten dituzte: bereziki, Administrazio bakoitzaren "koordinazio unitatea", zeinaren bitartez jarduketa guztiak egiten diren (3. idatz-zatia),

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

adiskidetasunezko proposamenaren oinarrizko edukia (4. idatz-zatia) eta adiskidetasunezko proposamena jaso duen Administrazioak bete behar dituen arauak (5. idatz-zatia).

Arau horien barruan daude gorago transkribatu den 3. paragrafoan bilduta daudenak. Paragrafo horren alderdi berrien artean funtsezkoa, Itunaren 43.Bederatzi artikuluekin alderatuta, eztabaida bat konpontzeko saiatzeko Administrazio interesdunei bilera baterako gonbidapena egin ahal izatea da. Dena dela, hori ez da prozeduraren ezinbesteko fase bat, eta beraz, aurreikuspen horrek ez dauka eraginik Administrazio interesdunen proposamenen izaeran, bilera akordiorik gabe egin zein bilera bera azkenean ez egin.

Alde horretatik, Batzorde Mistoak onetsitako arauen hitzaurreak zera dio: "Zentsu-egiaztapeneko prozedura hori komenigarria da, bai akordioa lortzen bada –eraginkortasun handiagoa eta irudi hobea lortzen baita zergadunarekiko harremanean–, bai akordiorik ez badago, eragindako administrazioen beren beregiko irizpena dagoen aldetik, eta epe mugatu batean. Hala, aldi berean, beste prozedura batzuen jarraipena errazago bihurtzen da". Paragrafo horretatik zerra ondorioztatzen da argi eta garbi: akordiorik ez badago, Administrazio interesdunen proposamenen bidez prozedura subsidiarioaren bidea irekitzen da gatazka ebazteko; hain zuzen ere, prozedura subsidiario hori gatazka Arbitraje Batzordearen mendean uztean datza.

Gainontzean, aipatu diren arauak ez dute ezartzen Administrazioen artean eztabaida ebazteko egin beharreko bileraren deialdiaren prozedura. Aitzitik, Administrazioen zuhurtziaren eta borondate onaren mendean uzten dute bilera egitea ala ez. Kasu honetan espedientean ez dago inolako daturik bilera hori egiten saiatu zirela ondorioztatzeko. Aitzitik, Bizkaiko Foru Ogasuneko Zuzendari Nagusiak ZAEARI bidali zion 2009ko martxoaren 3ko ofizioan, beren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

beregi adierazten da uko egiten zaiola "Administrazioen arteko bilerari, baldin eta 2008ko azaroaren 5eko komunikazioan ezarrita dagoena berresten bada; kasu horretan prozedurak aurrera jarraituko du Itunaren 43. artikuluko Sei idatz-zatian aurreikusita dagoen moduan". Beste alde batetik, EAEko ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2009ko irailaren 10eko ofizioak Bizkaiko Foru Ogasunaren proposamena gaitzesten du, baina aukera bat irekita uzten du, "beharrezkotzat joz gero", Administrazio bien artean bilera baten deialdia egiteko, Batzorde Mistoak onetsitako arauetan aurreikusita dagoen bezala.

Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka planteatu izanak esan nahi du eztabaida adiskidetasunez ebazteari uko egin zaiola behin betiko, eta beraz, ZAEAK 2009ko irailaren 10eko ofizioan adierazitakoa azken jarreratzat hartzen dela. Ondorioz, planteamendu horrek Foru Aldundiaren tesiaren aurka egiten du. Izan ere, uste du ZAEAREN jarrera horrek ez dakarrela Aldundiak egindako agindeiaren ukapena, kasu honetan ez bailitzateke beteko EIABAREN 13.1 artikulua eskatzen duen baldintza.

Horrenbestez, gatazka planteatzeko EIABAREN 13.2 artikulua ezartzen duen hilabeteko epea 2009ko irailaren 11tik zenbatu behar da, egun hartan jakinarazi baitzion ZAEAK Bizkaiko Foru Aldundiari azken honek proposatutako helbide-aldaketaren gaitzespena. Beraz, gatazka Arbitraje Batzorde honen aurrean planteatu zenerako –2009ko urriaren 23an– epe hori igaro egin zen.

Aurreko gogoeta horiengatik, bidezkoa da gatazka epez kanpo planteatu izanari buruzko alegazioa onartzea, eta beraz, gatazka ez onartzea.

5. Aurreko ondorio hori kontuan hartuta, ez da bidezkoa gatazkaren mamia aztertzea.

Hori dela bide, Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
14/2009	R1/2012	2012/01/31	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridiko baten zerga-egoitza. Gatazka ez da onartzen

HAU ERABAKI DU:

Gatazka ez onartzea.